

# HIRIA

Gaur egungo hirigintza

Ibilbideak – zirkulazioa



MUGIKORTASUNA

Guneak espazioak



HIRIAREN ZERBITZUAK

OINEZKO IBILBIDEAK

Irisgarritasuna



GARRAIO PUBLIKOA

Geltokiak, maiztasunak, ...



SEGURTASUNA

Hiri debekatua



HIRIKO EKIPAMENDUAK

Zerbitzuak etxetik gertu



ETXEEN INGURUAK

Kaleko diseinua



IDENTITATEA

Hirian emakumearen oroitzapena





EMAKUMEK AUZOA MARRAZTEN





OINEZKO  
IBILBIDEAK




GARRAIO  
PUBLIKOA




SEGURTASUN  
A



EKIPAMENTUA  
K



INGURUNEA



IDENTITATE  
A

Tokiak ez dira neutroak; emakumeak eta gizonak haien lurraldeetan dituzten rol eta ekintzak baldintzatzen dute hiriaren erabilpena, irisgarritasuna eta haiekiko oharpena, non haien artean guztiz desberdinak izan daitezke.



Oinezko ibilbideek hiriko kolektibo guztien autonomia eta irisgarritasuna ahalbideratu behar dute.

- Zein tokitara zoaz oinez? Eta bestela, nola zoaz?
- Zein traba mota aurkitzen dituzu zure ibilbideetan?
- Noiz aldatu behar duzu zure ibilbidea eta zergatik?
- Nolakoak dira ibilbide horien inguruneak?
- Pertsonen dependentzia sortzen dute oinezko ibilbideak?



Garraio publikoak eguneroko bizimoduari erantzuten duen zerbitzua eskaini behar dute.

- Zein garraio publiko erabiltzen duzu normalean?
- Nora joateko erabiltzen dituzu?
- Deskribatu zuk erabiltzen dituzun geltokiak.
- Garraio publikoaren konbinazioa egin behar duzu?
- Egokia da erabiltzen duzun garraio publikoaren maiztasuna?
- Garraio publikoaren ordutegiak zure beharrak kontutan hartzen ditu?



Beldurra subjektiboa da. Espazio publikoak emakumearen segurtasuna eta autonomia ziurtatu behar du.

- Zein espaziotan sentitzen duzu beldurra?
- Nolako da espazioa beldur hori sentitzeko?
- Zein espaziotan sentitzen zara segurua?
- Etxera bueltatzeko ordua aukeratu dezaket? Ba ahal dago garraio publikorik, argi nahikorik edota jende desberdina kaletik?



Ekipamenduak eguneroko bizimodura egokitu behar dira bere funtzionamenduaren malgutasunaren bitartez.

- Zein ekipamendu erabiltzen duzu?
- Zenbatera daude zure etxetik?
- Nola joaten zara?
- Deskribatu ibilbideak. Zure ibilbideetan konbinatzen ahal dituzu zeregin edo ekintza desberdinak?
- Ezagutzen dituzun ekipamenduen deskribapena egin. Beraien alde egokiak eta desegokiak aipatu.
- Ekipamendu eraikia erlazio egokia dauka kalearekiko?
- Auzoan beharrezkoak diren ekipamendu eta komertzio desberdinak dituzu?



Eraikinen inguruneak ekintza desberdinak bideratu behar ditu pertsonen erlazioak areagotuz.

- Zein ekintza burutzen duzu espazio publikoan?
- Zein espaziotan burutzen duzu ekintza bakoitza?
- Zein erlazioa dauka espazio publikoak ekipamenduekin?
- Zein erlazioa dauka espazio publikoak zure etxebizitzarekin?
- Zein instalazio (eserlekuak, kirola egiteko makinak, landaretza, ...) erabiltzen duzu espazio publikoan?
- Aldatzen al da guneren bat momentuaren arabera? (giroa ezberdina delako momentuaren arabera, argiztapenarengatik, ... aldatzen al da egunetik gabera, edo lanegunetatik asteburura, edo negutik udara, ...)
- Zer botatzen duzu faltan?



Espazio publikoak gizartean emakumearen garrantzia nabarmendu behar du.

- Emakume aipamenik (kale izenak, monumentuak, ...) ezagutzen ahal dituzu?
- Zein espazio emakumeekin erlazionatzen duzu?
- Ezagutzen ahal duzu aipamen historikorik zure auzoan?

EMAKUMEOK AUZOA MARRAZTEN



EMAKUMEOK AUZOA MARRAZTEN



### Helburuak

- Jakinaraztea hirigintzak betetzen duen papera gure bizimoduan.
- Emakumeen ikuspuntutik auzoa aztertzea. Auzo bakoitzaren erabiltzaile nagusien ikuspuntutik.
- Gabeziak plazaratzea.
- Emakumeek auzoko bizimodua indartzeko daukaten garrantzia ezagutaraztea. Beraiek betetzen dituzten paper anitzak agertzea. Kontziente izatea beraien garrantziaz ...
- Pertsona bakoitzak gauzak aldatzeko dituen gaitasunak sendotzea. Herritarren partaidetza sustatzea.
- Auzoaren adin ezberdineko emakumeen arteko harremanak sustatzea.

### Helburu hauek aurrera eramateko zer planteatzen da?

- Hasiera emango zaie ekitaldi hauei hitzaldi baten bitartez, non hirigintzak, orokorrean gure bizimoduan, eta konkretuki emakumeengan, duen garrantzia aztertuko den. Hartzaileei oinarri batzuk eskainiz, geroko tailerretan landuko dena aprobetxatu dezaten.
- Lehenengo tailer bat emakume horien ikuspuntutik auzoa aztertzeko, hauei hotsa eskainiz. Beraiek erreflexionatu dezaten gai honen inguruan. Auzoaren gabeziak identifikatzeko.
- Aurreko tailerrean identifikatu den arazo nagusiarekin azterketa monografiko bat egingo da. Honekin batera arazo hori auzoari ezagutarazteko ekintza batean pentsatuko da.
- Azkenengo tailerrean kalera aterako gara, proposatutako ekintza aurrera eramateko.

- Lan taldetan bananduko ditugu emakumeak. Lan talde horien egituraketa anitza bilatuko da, partaideen arteko erlazio berriak sortu nahian.

## **Laburbilduz, HONAKO PROGRAMAZIOA PROPOSATZEN DA**

Jardunaldi guztiak 19:00tatik 21:00ra burutuko dira, asken jardunaldia izan ezik.

### **A) HITZALDIA**

**Helburua:** Gaiaren kokapena.

**Dinamizazioa:** Aurkezpen baten bidez, teoria parte bat emango da eta teoria horren ostean eztabaidatzeko denbora izango da, horren gaineko zalantzak eta iradokizunak proposatzeko garaia.

### **B) LEHENENGO TAILERRA**

**Helburua:** Auzoaren hirigintza analisia eta honen ondorioak emakumeen eguneroko bizitzan. Bizipen desberdinak dituzten emakumeen zailtasun eta nahiak amankomunean jartzea.

Auzoaren mugikortasuna eta zerbitzuak aztertzea. Aipatutako arazoetatik bat aukeratuko dute hurrengo tailerrean garatzeko.

**Dinamizazioa:** Bi partetan banandutako tailerra izango da:

Lehenengo partean, hitzaldian agertaraziko sei gai horiek aztertzeke, sei lantaldetan bananduko gara, arlo bakoitzak bere kabuz aztertzeke. Hitzaldian azaldutako gaiak hauek dira: oinezko ibilbideak, garraio publikoa, segurtasuna, ekipamenduak, ingurunea eta nortasuna.

Bigarren partean, lantaldeek ateratako ondorioak amankomunean jarriko dira. Gai ezberdinen artean dauden loturak eta arazoak nabarmenduko dira.

Azkenik, guztion artean, gai bat aukeratuko da auzoari plazaratzeko



## C) BIGARREN TAILERRA

**Helburua:** Emakumeek beraiek kalean egingo den ekintza bat proposatuko dute, aurreikusitako arazoa plazaratzeko.

**Dinamizazioa:** Arazo horrekin erlazionatutako adibide batzuen azterketa egingo dugu, emakumeak erreferentzia batzuk izan ditzaten.

Taldeetan banatuko gara guztion partaidetza areagotzeko. Lan talde bakoitzak, arazo hori azaleratzeko, ekintza bana proposatuko du. Amaieran, agertutako ekintzetatik bat aukeratuko dute hirugarren tailerlean gauzatzeko.

## D) HIRUGARREN TAILERRA

**Helburua:** Kalera irtengo gara! Tailerretan eginiko lanaren ondorioz ohartu garen arazoa ekintza baten bitartez azalduz plazaratuko dugu. Auzoa partaide bihurtuz, beraien errealitatea dela erakusteko.

**Dinamizazioa:** Parte hartutako emakumeok erabaki behar dugun ekintza gauzatuko dugu.

Hautzaindegi zerbitzua egongo da aurretik honen beharra jakinaraziz gero.

**Espero dugu zuen gustukoa izatea**

**Edozein iradokizunik edo galderarik baldin badaukazue jakinarazi diguzue.**

**Agur bero bat!**

## HIRIGINTZA ETA GENEROA

“Tokiak ez dira neutroak; emakumeak eta gizonak haien lurraldeetan dituzten rol eta ekintzak baldintzatzen dute hiriaren erabilpena, irisgarritasuna eta haiekiko oharpena, non haien artean guztiz desberdinak izan daitezke.”

Zaida Muxi

### zer da generoa?

“Sinbolikoki eraikitako pertsonen sexuan oinarritutako balore kultural desberdinak, sortarazten duten eskubideen zapalketa. Genero desberdintasuna ez dator ezaugarri biologikoetatik, baizik eta historian zehar mentalki eta kulturalki eman den eraiketatik. Beraz generoak ez du sexuaren esanahi berdina, lehendabiziko terminoa gizarteak kulturalki dagokion kategoria da eta bigarrena kategori biologikoa.”

### zer da hiria?

“Hiritargo baten dugun botere eta kultura bilkurarik handiena; hizkuntzarekin bat gizakia sortutako arterik nagusien izan da.”

Martha Alonso Vidal

## EMAKUMEAREN EGOERA

“Betidanik pentsatu izan da gizonaren bilakaerarentzat tokirik egokiena gune publikoa zela eta pribatua deituriko gunea ordea emakumearen egonezinak garatzeko tokirik egokienak zirela, hau da, kalea, Erakundeak, Hiria oro har gizonaren ondarea zen eta etxea, tentsioetatik urrun aurkitzen den gotorleku bezala, emakumeen ondarea.”

Carmen Martínez Garrote

“Bazen garai bat, garai luzea, non emakumeak gizonengandik “pentsatuak” ziren ...

Baina denbora honetan, baita, emakumeak egon ziren non beraiek pentsatzen, eta gune publikoak okupatuz, berdintasuna eskatu zuten -gizona- eredu gisa, ikasbide gisa, subjektu bakartzat kokatuz, noiz denbora igaro arte, beharrezko konfiantza irabazteko gai izan ziren hiriko subjektu giza berdina zirela aldarrikatzeko, beraz hiritar eskubide berdina merezi zituzten”

M<sup>a</sup> Teresa Martínez González

## GAUR EGUNGO HIRIA

“... Auzo itxi edo gotortuek zeharkaezinezko limiteak dituzte; aisiarako eta kontsumorako zentroek oinezkoentzako sarbide korapilatsuak dituzte; eraikin korporatiboak bere auzotarrengandik goratzen dira. Guzti honi, izendatzaile komun bezala; zaintza, ibilgailu pribatuen bitartezko sarbideak, itxura eta portaera kodeen

jakintza; gehitzen zaio. Ikusezinezko sare honetatik at gelditzen dena alde batera utzitako eta gainbeheratutako hiria da, hiriko arriskuen berbaldiei arrazoi emanez, bestearen arriskua: hiria, konektatu gabeek egoitza duten eta bizirautean duten tokia da.”

Zaida Muxi

## MUGIKORKASUNA

### MUGIKORTASUNA:

Pertsonen lanagatik, prestakuntzagatik (ikasketak), aisialdiagatik, erosketengatik, osasunagatik, edo beste giza edo kultural arrazoiak direla eta egiten dituzten joan-etorriak dira.

### IRISGARRITASUNA:

Ingurune fisikoaren irisgarritasunak adierazten du guneen ezaugarriek ahalbideratzen dutela edozein pertsona, mugikortasun edo komunikazio desgaitasuna dituelarik ere:

Toki eta eraikin guztietara esfortzu larririk gabe eta autonomiaz ailegatu daitekeela.


Erabilpen publikoko edozein establezimendura segurtasun eta autonomi guztiz sartzeko aukerak dituela.

## IRUÑAKO HIRITARTASUN ETA BERDINTASUN ADIERAZLEEN TAILERRA

- Adineko pertsonentzat tokia duten zenbat funtzio anitzeko auzo etxea daude eta zein den hauen auzoz auzoko banaketa.
- Zenbat gazte asteburuetan bere auzotik irtetera behartu dauden ondo pasatzeko.
- Zenbat kale argiztapen txarra daukaten hirian, batez ere oinezko emakumeen ikuspuntutik.
- Zenbat emakume bakarrik (edo emakumeen artean) ibiltzen diren parkeetatik.
- Zenbat automobil higitzen diren hiritik.
- Zenbat eserleku dauden kaleetan.
- Zenbat pertsonen erabiltzen dituzten plaza publikoak.
- Zenbat pertsona zailtasun mugikorrek autonomia daukaten hiritik mugitzeko.
- Zenbat sarrera daude eskailerarik gabe merkatuetara, osasun zentroetara, garraio geltokietara ...
- Zenbat zuhaitz landatu diren urtero hiriaren kaleetatik.
- Zenbat etxebizitza dauden alokairu ordaingarria dutenak hirian.
- ...

### LIBURUAK

- “Hiri analisirako manuala. Genero eta eguneroko bizitza”  
\_ Hiri kolektiboa \_ Eusko jaurlaritza
- “Arquitectura y género, espacio público / espacio privado”  
\_ Mónica Cevedio \_ Icaria Antrazyt
- “La arquitectura de la ciudad global”  
\_ Zaida Muxí \_ Nobuko
- “Arquitectura y política. Ensayos para mundos alternativos”  
\_ Josep Maria Montaner - Zaida Muxí \_ GG
- “Habitar el presente”  
\_ Josep Maria Montaner - Zaida Muxí \_ Ministerio de vivienda
- “Deseo de ciudad. Arquitecturas revolucionarias”  
\_ Cristina García-rosales \_ Mandala
- “Heroínas del espacio. Mujeres arquitectos en el movimiento moderno”  
\_ Carmen Espejel\_ Nobuko
- “Urbanismo en el siglo XXI”  
\_ Jordi Borja – Zaida Muxí\_ UPC
- “Políticas del espacio. Arquitectura, género y control social”  
\_ José Miquel G. Cortés\_ Nobuko
- “Bilbao, desarrollos urbanos”  
\_ Javier Martínez Callejo\_ Eusko jaurlaritza
- “Género, espacio y poder. Para una crítica de las ciencias políticas”  
\_ Mino Vianello y Elena Caramazza\_ Ediciones cátedra universidad de valència
- “Muerte y vida de las grandes ciudades”  
\_ Jane Jacobs\_ Capitan swing
- “Low cost”  
\_ Revista Paisea
- “arkitektura gabeko arkitektura”  
\_ Aldiri arkitektura eta abar aldizkaria



## INTERNET

- <http://plazandreok.blogspot.com>
- <http://punt6.wordpress.com>
- <http://lamujerconstruye.blogspot.com>
- <http://www.hiriakolektiboa.org/blog>
- <http://www.ciudaddemujeres.com/articulos/-Urbanismo>
- <http://www.gea21.com/espanhol/htm/ar1.htm#6>
- <http://www.generourban.org>
- <http://www.mujeresporlaciudad.org/>
- [http://www.womenincities.org/espagnol/downloads\\_es/downloads\\_es.htm](http://www.womenincities.org/espagnol/downloads_es/downloads_es.htm)
- <http://www.albaceteplural.es/blogdes>
  
- <http://habitat.aq.upm.es>
- <http://www.plataformaurbana.cl>
- <http://accionesurbanas.blogspot.com/>
- <http://www.recetasurbanas.net>
- <http://basurama.org/>
- <http://estaesunaplaza.blogspot.com/>
- <http://estonoesunsolar.wordpress.com/>
- <http://www.todoporlapraxis.es/>
- <http://www.desayunoconviandantes.com/>
- <http://medialab-prado.es/>